BESTELAKO XEDAPENAK

UNIBASQ-EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALITATEA EBALUATU

2364

EBAZPENA, 2012ko maiatzaren 7koa, Unibasqeko zuzendariarena. Horren bitartez, lan-kontratu iraunkorra duten EHUko irakasleen (irakasle oso, irakasle agregatu, irakasle lankide finko eta ikertzaile finkoak) ikerketa-jarduera ebaluatzeko eskaeren ebazpena emateko eta jakinarazteko epea etetea adosten da.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen (AJAPEL) azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42.5 artikuluak xedatutakoaren arabera eta deialdiak (2011ko abenduaren 14ko EHAA, 235. zb.) ezartzen duenaren arabera eskaeren ebaluazioa ebazteko guztiz beharrezkoa da CNEAIk Unibasqera nahitaezko txostenak bidaltzea.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Lan-kontratu iraunkorra duten EHUko irakasleen (irakasle oso, irakasle agregatu, irakasle lankide finko eta ikertzaile finkoak) ikerketa-jarduera ebaluatzeko eskaeren ebazpena emateko eta jakinarazteko epea etetea CNEAIk nahitaezko txostenak bidali arte. Behin txostenak jasota, deialdian aurreikusitako 6 hilabeteko epeari berrekingo zaio (ekainaren 30ean bukatzen zena). Beraz, Unibasqek ebazpen hau EHAAn argitaratzen denetik 2012ko ekainaren 30era arte gelditukо liratekeen egunak izango ditu eskatzaileei ebaluazioen emaitzak jakinarazteko.

Bigarrena.– Interesdunei ebazpen hori jakinaraztea, horren berri izan dezaten, AJAPELeko 58. eta 59. artikuluetan xedatutakoari jarraiki.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 7a.

Unibasqeko zuzendaria,
JUAN ANDRÉS LEGARRETA FERNÁNDEZ.